

OSTEGUNA

2022/07/28
10. urtea, 1.643. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

**Egoera
irregularrean
daudenentzat
erregularizazioa
eskatu nahi dute**

Sinadura bilketa egiten ari
dira Espainiako estatuak
ezohiko erregularizazio bat
bultzatzen eskatzeko // **5**

Udako oporraldiaren
aurreko azken alea bihar
argitaratuko du Atariak.

**Irailaren 2an itzuliko
gara.** Bitartean,
jarraitu eskualdeko
berriak **Ataria.eus**-en.



Ion Gandra, Jonan Basterretxea, Idoia Seijo, Beatriz Artolazabal, Olatz Peon eta Estitxu Zaldia, jardunaldiaren aurkezpenean, atzo Tolosan. ATARIA

Bakearen Nazioarteko Jardunaldia hartuko du Tolosak irailean

UNESCO-k antolatzen du urtero Bakearen Nazioarteko Egunaren harira, eta aurten Tolosan egokitu da; arteak bakearen kulturarekin duen harremana aztertuko dutela esan dute antolatzaileek // **3**

Nahia Garridok urrezko domina eskuratu du Europako Gazteriaren Jaialdian

Tolosaldea IKT taldeko igerilariak Eslovakian jokatzeko ari diren txapelketan lortu du domina, infantil mailako 200 metro bizkar estiloan; 100 metro bizkar proban lehiatuko da gaur // **7**

Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun ordenantza, prest

Kultura politikoa, demokratikoa, herrigintza eta administrazioa sustatu eta sendotzeko lagungarria izango dela sortu duten ordenantza esan dute Tolosako Udaletik // **2**

Jon Laukvik eta Mirua taldearen kontzertuak abuztuan

Auzoak dinamizatzeko abiarazitako Beste Plazak ekimenaren barruan Mirua taldea ariko da Aldaba auzoan

Erredakzioa

Jon Laukvik organistaren eta Mirua taldearen kontzertuez gozatu ahal izango da abuztuan Tolosan. Donostiako Musika Hama-bostaldiaren barruan, Jon Laukvik organista norvegiarraren kontzertua izango da abuztuaren 2an, 20:00etan Tolosako Santa Maria elizan. Europan, Kanadan, Japonian, Korean, Israelen eta Estatu Batuetan egin ditu birak, eta Tolosan emango duen kontzertua ere berezia izango da.

Horrez gain, aurten Zumarditxikian egin den Kultura Plazara jaialdiaren ondoren, udalak, jarraipena emateko asmoz, Beste Plazak programa osatu du herriko auzoak dinamizatzeko. Oraingoz, udalak aurreratu duenez, Mirua taldearen kontzertua izango da abuztuaren 27an, 19:00etan Aldaba auzoan.

Ohiko osoko bilkura egingo dute gaur

19:30ean izango da, eta besteak beste, iruzurraren aurkako plana, udalak Tolargi SL udal sozietateari egindako kudeaketa aginduaren amaiera eta pertsonalaren hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskaera egiten dutenei tasa ezartzea onartuko dituzte. Era berean, Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak eguneratuko dituzte eta udal kirol instalazioen kudeaketarako zerbitzuen emakida-kontratuaren hasiera data izango dute hizketagai.

IRAGARKI LABURRAK

Galdutakoak

Betaurrekoak. Larraulgo ur depositoaren ondoan eguzkitako betaurreko beltzak galdu ziren uztailearen 17an, Oakley markakoak. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez, deitu 688 859 594 telefono zenbakira.

Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun ordenantza sortu dute

Kultura politikoa, demokratikoa, herrigintza bera eta administrazioa sustatu eta sendotzeko lagungarria izango dela adierazi dute Tolosako Udaletik

Erredakzioa

Tolosako Udalak «aitzindaria» den Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun ordenantza osatu du. Herritarren parte hartzearekin lotuta, udaletik zehaztu dutenez, hainbat helburu ditu arautegi honek. Udalerriko bizi-lagunen eskubideak zehaztu eta garatzea, gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren esparruan; herritarrek gai publikoetan parte har dezaten ahalbidetzea eta bultzatzea, parte hartzeko hainbat bide ezarri (lankidetzazkoak, elkarrizketa bidezkoak, deliberaziozkoak eta zuzenak); herritarren parte hartzeko tresnak zehaztea eta prozedurak ezartzea (gune egonkorak, parte hartzeko prozesuak, herritarren ekimenak eta herritarren kontsultak), eta elkartegintza zein herritartasuna sendotu, bultzatu eta lankidetzaren publiko-soziala sustatzea.

Joseba Ormazabal, Gobernantza eta Komunitateko zinegotziak adierazi duenez, udal gobernuak «barneratua» du gobernantzaren garrantzia. «Argi dugulako, komunitate gisa ditugun erronkei elkarlanetik erantzun behar diegula eta komunitatea sendotzeko bide bakarra dela gobernantza eredu berrie-



Garikoitz Lekuona teknikaria eta Joseba Ormazabal zinegotzia. ATARIA

tan sakontzea». Hala, azken urteetan egindako ibilbidea eta onartu berri duten ordenantza «gobernuaren konpromisoaren adierazlerik nagusienak» direla gaineratu du.

Zentzu honetan, emandako hainbat pauso gogorazi ditu: «Gobernantza eta Komunitatea saila sortu genuen legealdi hasieran eta Tolosatzen egitasmoaren eskutik, Tolosatzen Eskola Irekia eta herri aliantza garatu ditugu azken urteetan, aurrekontu parte hartzaileekin batera». Gainera, eskuarte gobernantza eredu berrietan sakon-

tzeko beste proiektu garrantzitsu bat dutela aurreratu du: «Arantzazulab eta OCDErekin (Lankidetzaren eta Garapen Ekonomikorako Erakundea) elkarlanean garatzen ari gara, Tolosan prozesu deliberatibo ordezkatzailerik bat aurrera eramateko».

PARTAIDETZA ERROTZEKO

Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasun ordenantza «aurreapauso garrantzitsua» dela adierazi du zinegotziak. «Tolosa aitzindaria izan da horrelako ordenantza baten garapenean: ikuspegi berritzaileak txertatu

eta jaso ditugu ordenantzan, komunitatearen garapenean, trebakuntzan, berdintasunean eta ikuspegi feministan azpimarra jarrita. Ez baitago benetako gobernantzarik, herritarrek ez badaude benetan ahaldunduta beraien eskubideetan eta betebeharretan».

Ekindako bideari jarraipena emateko ordenantza, «herritarrekin bat, herritarrekin elkarlanean jarduteko» osatu dutela esan du. Modu parte hartzailean garatu da ordenantza, eta zenbait saio egin dituzte osatzeko.

KOMUNIKAZIOA INDARTZEA

Alor desberdinetako legeak oinarritzat hartuz, lege esparru zabaletik abiatuz, alor desberdinetako aipamenak dokumentu bakarrean jaso eta Tolosako errealitatera egokitzen den partaidetza eta garapen komunitarioko eredu garatzen duela ordenantza berriak azaldu dute.

Gainera, udalaren eta herritarren arteko informazio-eskubideari, gardentasunari eta komunikazioari lotutako tresnak eta egiturak definitzen ditu, bai eta herritarren eta udalaren arteko harreman-modu eta partaidetza-bide berriak arautzeko bitartekoak, mekanismoak eta prozedurak ere.

1.150 herritarrengana iritsi da Tolosatzen Eskola Irekia ekimena

Erredakzioa

Tolosako Udaleko Komunitatea eta Gobernantza sailak Tolosatzen Eskola Irekiaren balorazio «oso positiboa» egin du, «adin ezberdinetako bizilagunek gai anitzengatik inguruan hausnartzeko espazioa eskaini baitu hiruga-

ren urtez jarraian Tolosatzen Eskola Irekia egitasmoak». Aurtengo ikasturtean 1.150 herritarrengana iritsi da proiektua. Datu zehatzei erreparatu, ekitaldiak jendetsuak izan direla nabarmendu du sailak. Hala, guztira, 22 hitzaldi eta tailer antolatutakoak izan ziren, eta 897 pertsonen

hartu dute parte ekimenetan: lehen hiru hilabeteetan *Bizitzarako konpetentziak* izenburupean, 344 pertsonen eta bigarren hiru hilabeteetan, berriz, *Kontzienteki bizi* izenburupean, 553 lagunek.

IKASTETXEAK

Arrastoan egitasmoa ere burutu zuten, Herrikide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeen parte hartzearekin. Guztira 11 saio izan zituzten eta 250 haur inguru batu zituen. Halaber, zaintza tailerrean 10 kideko taldea izan zuten. Udalak «oso gustura» agertu da ekintza honekin ere eta, beste behin, eskerrak ematen dizkie

herriko ikastetxeei Tolosatzen Eskola Irekiarekin bat egiteagatik.

Tolosako Udalak herritartasun aktiboa eta herritarren ahaldundutza sustatzeko helburuarekin abiarazi zuen Tolosatzen Eskola Irekia.

Herritarrek hainbat gaitasunetan trebatzea eta elkar ezagutzea sustatzea ditu helburu, horretarako, proiektuak, elkarlana eta lankidetzaren oinarri hartuta, udalaren, herritarren, herriko talde antolatuen eta eragile ezberdinen arteko elkarrizketa eta elkarren arteko sinergiak sustatzeko asmoz.

JATETXE-TABERNA ALOKAGAI

Lizartzan jatetxe-taberna etxearekin alokatzen da, Jose Mari taberna. Etxeak hiru solairu, bost logela, bi egongela eta bi komun ditu.

Interesa duenak soilik deitu dezala
665 73 57 17 zenbakira.

Tolosa «bakearen nazioarteko hiriburu» izango da, egun batez

Bakearen Nazioarteko Jardunaldia egingo dute irailaren 17an, eta mahai ingurua, bakearen aldeko martxa, txotxongiloak nahiz abesbatzen kontzertua izango dira

Iñigo Terradillos Gaztañaga

XX. Bakearen Nazioarteko Jardunaldia egiteko Euskal Herria hautatu du UNESCO-k Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak. Zehazki, Tolosan egingo dute, irailaren 17an, Bakearen Nazioarteko Egunaren aurreko larunbatean. Bakea, kultura eta gazteria izango dituela oinarrian azaldu dute, eta abesbatzak eta txotxongiloak batuko dituzte.

1981. urtean, Bakearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak irailaren 21a, eta ordutik, bakearekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak biltzen dituen jardunaldia antolatzen du UNESCO-k. Bada, urtero lekuz aldatzen dute, eta gai jakin bat izaten du oinarrian. 2019an jardunaldi hau Gipuzkoan, eta zehazki Tolosan ospatua izateko hautagaitza bateratua aurkeztu zuten Topic zentroak, Tolosako Ekinbide Etxeak, Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Tolosan izanik, abesbatzak eta txotxongiloak elkartuko zituen proiektuan pentsatu zuten. Hainbat hautagai izan ziren, eta azkenean Tolosakoak irabazi zuen. 2019ko irailean ospatu behar zen berez jaialdia Tolosan, baina, pandemiagatik atzeratu egin da, eta aurten egingo dute.

EKITALDIAK EGUN OSOAN

XX. Bakearen Nazioarteko Jardunaldiak arteak bakearen kulturarekin duen harremana aztertuko duela adierazi dute. Egitarau osoa irailean emango dute ezagutzera, baina aurreratu dutenez, hiru ekitaldi nagusi izango ditu. Goizean, Topic-en egingo den mahai-inguru batean artearen, gazteriaren eta bakearen arteko harremana aztertuko dute. Halaber, Tolosako hainbat puntutan txotxongilo tailerrak egingo dituzte. Arratsaldean, berriz, Tolosako kaleetan bakearen aldeko martxa kultural eta herrikoia egingo dute, mundu osoan indarkeria bertan behera utz da-



Estitxu Zaldua, Ion Gambra, Beatriz Artolazabal eta Olatz Peon, atzo, Bakearen Nazioarteko Jardunaldia aurkezten. I.T.

din eskatzeko. Munduko hainbat lekutatik etorritako bost abesbatzak, eta Euskal Herriko beste batek, ibilbidearen hainbat puntutan abestuko dute. Martxaren amaieran, Josu Elberdin konpositoreak egun horretarako konposatutako obra bat abestuko dute abesbatza guztiek, elkarrekin. Martxaren hasieran, bestalde, Jonan Basterretxeak, bere aitaren *Bakearen usoa* eskulturaren oinarritutako txotxongiloa egongo da. Iluntzean, berriz, Leidor aretoan abesbatza guztiek kontzertu berezia eskainiko dute, eta ekitaldi horrekin emango zaio amaiera ospakizunari.

Bakearen Nazioarteko Eguna Tolosan ospatzea aukera «paregabea» dela gizartean bakearen balioak sustraitzeko eta indartzeko esan dute ekitaldiaren antolaketan parte hartu duten erakundeak. Olatz Peon Tolosako alkateak, nabarmendu duenez, «Tolosa kulturari lotutako herria da, eta baita bakearen kulturari

lotutakoa ere. Tolosak gatazka garaiak bizi izan ditu, indarkeria mota desberdinekin, baina aurrera egiten jakin dugu, elkarbizitzarako urratsak ematen, errespetutik, hausnarketatik eta

Gizartean bakearen balioak sustraitzeko eta indartzeko aukera paregabea dela esan dute antolatzaileek

elkarrizketatik abiatuta, eta erakundeek eta herritarren foroek bultzatutako ekimenen bidez». Horregatik uste du Tolosa «adierazgarri» dela bizikidetzaren arloan, eta baita kulturaren arloan ere.

Peonen ustez, jardunaldiak aukera emango du bizikidetzaren arloan lanean jarraitzeko eta bakearen kultura sustatzeko, «giza eskubideen defentsan, etorkizuna iraganetik ikasiz eraikitzeko». Kultura izango duela oinarrian bakearen kon-

gresuak aipatu du, «herrian hain errotuak diren abesbatzak eta txotxongiloen eskutik», eta horrekin batera, gazteria; «bakearen eraikuntzan gazteak giltzarri direlako, orainean nahiz etorkizunean».

Ion Gambra Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren zuzendari nagusiak «indarkeria urte gogorak» bizi izan ditugula, eta «bakearen aldeko aldarria ozen oihukatzea» egokitu dela azken hamarkadetan adierazi du. Gipuzkoan, «era apalean» lanean ari direla «bakearen aldeko kultura» bultzatzen, eta Bizikidetzaren Lantzen programarekin ari diren 28 udalerririk direla horren adibide esan du. «Indarkeria eta gatazka urteen ostean, beharrezkoa da oinarriak eraikitzea etorkizunean giza eskubideen urraketak errepikatu ez daitezen». Azken urteetan aurrerapauso «handiak» eman diren arren, asko geratzen dela

egiteko eta erronketako bat belaunaldi berriak direla nabarmendu du; «ahalegin berezia egin behar dugu guk bizitakoa belaunaldi berriek bizi ez deza-

Artearen, bakearen eta gazteriaren arteko harremana aztertuko dute goizean egingo duten mahai inguruan

ten. Giza eskubideen ezagutza zabaltzea eta bakearen kulturaren sakontzea ezinbestekoa da denon eskubideak errespetatuak izan daitezen».

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren hitzetan, bestalde, bakeak «indarkeriarik eza baino askoz gehiago» izan behar du. «Printzipio eta balio etiko eta demokratikoetan oinarrituta egon behar du». Ildo horretan, nabarmendu du egungo testuinguru geopolitikoan «are eta zentzu handiagoa» duela jardunaldi honek, «bakeak gaur egun ere konpromisoak behar dituelako. Eta gure konpromisoak bi oinarri ditu gaur egun: kultura eta gazteria».

Topic zentroko zuzendari Estitxu Zalduak ere azpimarratu du artea dela bakea lortzeko sostengu nagusienetako bat: «Artea kulturen, ideologiaren eta kontrako pentsamenduen arteko lotura izan da, da eta izaten jarraituko du. Historikoki, ez da egon koherentsia, demokratizazioa eta bakea, bizikidetzaren eta batasun sozialaren oinarri dituzten ekimenak sustatzen ez dituen arterik. Horregatik, herritarren kohesioa bilatuko den egun honetan, txotxongiloen artea presente izango da».

GONBIDAPENAK ESKURAGARRI

Irailaren 17an, beraz, Tolosa «bakearen nazioarteko hiriburu» izango da egun batez. Egundorretarako ekitaldiak zehazten joango diren arren, dagoeneko mahai-ingururako nahiz kontzerturako gonbidapenak eskuragarri daude *Bakea.eus* webgurearen bidez.

Adin guztietara egokitutako jaia

Gazteen eta erretiratuen eguna izan zen atzokoa santioetan; gaur, berriz, sagardo dastaketa eta txekor jatea eta Txumo txapelketa berezia egingo dituzte

Jon Miranda

Santio jaiek bere bidea jarraitzen dute Villabonan eta atzo Erretiratuen eta Gazteen eguna izan zen. Goizetik jubilatuen eskularen eta margoen erakusketa izan zen Berdura plazan, eta ondoren, Txermingo Zubimusu ikastolaren egoitzan bildu ziren bazkaltzeko 86 erretiratu inguru. Bazkalostean dantzaldia izan zuten bertarautakoek.

Atzokoa Gazteen eguna ere izan zen festen barruan. Onddo gazte asanbladaren gonbidapenari jarraituz, gaztetxetik pasa diren belaunaldi ezberdinak kolore ezberdinekin mozturatu ziren bazkalordurako. Ehunka gazte bildu ziren plazan egindako bazkarian. Norberak jatekoa eraman eta gazte asanbladak sagardoa jarri zuen kupeletik edateko. Arratsaldean, plazatik abiatuta Orkresta Nazionalarekin kalejiran ibili ziren gazteak, eta gauean, berriz, Su ta Gar eta Nikotina taldeen kontzertuak izan ziren plazan.

Gaur jarraituko du festak Villabonan eta 19:30etik aurrera, txekor jatea eta sagardo dastaketa izango dira Txerminen. 20:30ean berriz, japoniar jaia egingo dute. Txumo txapelketa izango da billabonatar erara eta sushi eta sake dastaketa egingo dute plazan.



Erreboteko plazan bildu ziren atzo, gazte asanbladak antolatutako bazkarian. J.M.



Erretiratuek Txerminen egin zuten bazkaria eta ondorengo dantzaldia. J.M.



Txistulari plazan zumba klase herrikoia egin zuten atzo arratsaldean eta gazte asko bildu zen bertan. J.M.



Amasa-Villabonako Udalak loraldi egokian dauden balkoi eta atari «itxuroso eta originalenak» saritu ditu Atari Bizi lehiaketan. Maria Jesus Goyak irabazi du lehen saria, Maria Lurdes Lizarzak bigarrena eta Jose Antonio Aizpuruk hirugarrena; Jai egitarauko azalaren egilea ere saritu dute. ATARIA

Trafikoan aldaketak egingo dituzte egunotan

Erredakzioa

Santio jaietan Kale Berria trafikoari itxita egongo da zenbait orduetan Iru Aldetako bidegurutzetik elizaraino. Amasa-Villabonako Udalak jakinarazi duenez mozketak hauek ez die larrialdietako zerbitzuei eragingo. Festa gunean garajea duten ibilgailuei eta bizi-lagunei, aldiz, elizako bidegurutzetik sartzeko aukera emango zaie. Gaur, 18:00etatik 22:00etara itxiko dute Kale Berria, eta bihar, 16:00etatik aurrera itxita egongo da igandeko 14:00ak bitarte. As-teburuan Kale Nagusian ezingo da zamalanik egin, baina gaur eta bihar, 06:00etatik 11:00etara zabalduko dute, hornitzaileak sartu ahal izan daitezen.

AUTOBUS ZERBITZUAK

Kale Berrian izango diren trafiko mozketek autobus geltokietan ere eragina izango dute. Beraz, kalea moztuta dagoen egun eta orduetan Donostiarako norabideko autobusek Olaederra kiroldegian egingo dute geldialdia eta Tolosarantz doazenak, berriz, Txermingo biribilgunean eta Arroako geltokian geratuko dira.

Amasa-Villabonako Udaltzaingoak herritar guztiei eskatu die jaietan herrian zehar mugitzeko ibilgailuak ahalik eta gutxien erabiltzeko, etenaldirik egon ez dadin. Egun horietan, oinezkoen

kopurua handitzen dela kontuan izanik, herrian zehar arreta handiz gidatzeko eskatu dute. Ibilgailuak kanpoaldean edo Txermingo aparkalekuan uztea gomendatu dute.

Beste hainbat ohar ere eman ditu Udaltzaingoak. Poltsa, diruzorro, telefono mugikoro edo balizko gauzei arreta jartzeko eskatu dute, lapurretak ekiditeko asmoz, «batez ere, jende multzo handia biltzen den tokian arrisku hori izan daiteke». Gainera, 16 urtetik beherakoek uztailearen 31ko sokamuturrean parte hartzea debekatu izango dutela ohartarazi dute udaltzainek, eta aipatu dute, ekintza bertan behera geratuko dela 16 urte baino gutxiagoko nerabeak eremura sartzen badira. Larrialdietarako 943 69 39 80 telefonora hots egin daitekeela ere aipatu du Amasa-Villabonako Udaltzaingoak.

GARBIKETA ZIZURKILEN

Villabonako Santio jaiak direla eta, garbiketa zerbitzu berezia kontratatu du Zizurkilgo Udalak. Bi herrien gertutasunak eragina izaten du jai egunetan eta sortzen den zikinkeria garbitu ahal izateko zerbitzu berezia kontratatu izan du urtero. Aurten ere hala egitea erabaki du udalak eta uztailearen 30ean eta 31n, garbiketa berezia egingo dute Zizurkilgo kaleetan.

Inor atzean ez uzteko

Egoera irregularrean daudenentzat ezohiko erregularizazio bat bultzatzeko herri ekimen legeilea sustatzen ari dira; 500.000 sinadura bildu behar dituzte



Pertsona migratzaile arrazializatuak dira mugimenduaren atzean daudenak, eta norbanako eta elkarte askoren laguntza izaten ari direla esan dute. J.M.

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Espainiako estatuan egoera irregularrean dauden pertsonen egoera erregularizatzea. Helburu horrekin sortu dute Regularizacion ya! mugimendua. Espainiako Kongresuan herri ekimen legeilea eztabaidatua izatea da asmoa, eta horretarako 500.000 sinadura bildu behar dituzte. Gipuzkoa mailan ere ari dira ekimena bultzatzen, eta Tolosaldean talde bat sortua dute sinadurak biltzen laguntzeko.

Talde horretako kide da Nadir Gutierrez, Tolosan bizi den boliviarra. Berak azaldu duenez, estatuan 500.000 pertsona inguru daude egoera irregularrean.

«Zure egoera erregularizatzeko gutxienez, hiru urte behar dituzu, baina, batez beste, zazpi urte eta erdi behar izaten dituzte paperik gabeek beren egoera erregularizatzeko. Kontua da tarte horretan bizi ahal izateko zer egiten duzun. Zaurgarritasun edo babesgabe egoeran dago jende asko, gizarte babesaren atzerketatik kanpo». Gainera, horietatik 125.000 inguru adingabeak direla nabarmendu du: «Izan ere, Espainian jaiotzen den haurrak ez du nazionalitatea eskuratzen, baizik eta gurasoek duten izaera administratiboa izatera pasatzen da. Hau da, gurasoek paperik ez badute, haurrak ere ez du paperik izango».

Horri atzeritartasun legearen ondorioak ere gehitu behar zaizkiola dio, «ezin baita ahaztu, mugetan gertatzen ari dena, Melillan, esaterako, edo gugandik gertu, Irun eta Bidasoa artean».

Bada, egoera hori aldatzeko, herritarrei legeak proposatzeko aukera ematen dien herri ekimen legeilea bultzatu nahi dute. Lehendabizi, ordea, 500.000 sinadurako langa gainditu behar dute irailerako, eta ondoren, Espainiako Kongresuak ebatzi behar du lege proposamena tramitera onartu edo ez.

Ezohiko erregularizazio bat egitea proposatuko dute, «pertsona migratzaile arrazializatuak eskubidedun pertsonak be-

zala errekonozituak izateko». Gutierrezek gogoratu du ez dela horrelako zerbait egiten den lehen aldia, eta pandemia garaian ere saiakera bat egon zela; «Alarma egoera ezarria zegoenean, lege besteko proposamen bat eztabaidatu zen, paperik ez zutenentzat erregularizazio berezi bat emateko, egoera hartan babesgabe gera ez zitezen. Europako beste hainbat tokitan, Portugalen edota Italian, esaterako, egin zuten, baina Espainian ez zen aurrera atera».

Orain beste saiakera bat egin nahi dute, «pandemiak agerian jarri baitu estatuan bizi diren pertsona askoren zaurgarritasun egoera». Baina, ez horregatik soi-

lik. «Justizia sozialagatik, hau ez baita karitate kontua».

Pandemia bat jasan ostean, eta bizitzen ari garen «urte gogorra» kontuan hartuta, Gutierrezek argi du «justiziazkoa» dela euren eskaera. «Lan eta egoitza baime-na izatea egoera irregularrean daudenak, hori da eskatzen duguna», adierazi du, egoera horretan daudenek jasaten duten beste ondorio bat salatuz: «Arraza-

«Eskatzen duguna ez da migratzaileen onurarako soilik, gizarte osoaren onurarako baizik»

**NADIR GUTIERREZ
REGULARIZACION YA!**

keriaren aurkako kolektiboek erakunde arrazakeria handia dagoela salatzen dute, izan ere, izaera administratibo bat ez izateagatik kanpoan geratzen zara».

Pertsona migratzaile arrazializatuak dira mugimenduko protagonistak, eta azaldu duenez, ekimenaren berri izan zutenean bat-batean eta segituan sortu zuten taldea Tolosan. Eskualdeko norbanako ugariaren eta Ana Yurd, Divina, Boolo edota Jator-kin elkartearen laguntza izaten ari direla esan du, eskerrak emanez.

Hala, herritarrak gonbidatu ditu sinatzera, eta argitu du sinadurak balioa izateko Espainiako herritartasuna izan behar duela sinatzaileak. Tolosan sinatzeko puntuak jarri izan dituzte asteburuetan, eta gainerakoan Jator-kin elkartearen Tolosako egoitzan dute puntu finkoa. ilpregularizaciogipuzkoa@gmail.com emaila ere badute informazioa jaso eta zalantzetarako.

«Ez da migratzaileen onurarako soilik, gizarte osoaren onurarako baizik», dio Gutierrezek. Lege proposamen horrekin inor atzean ez uztea lortu nahi dute, gizarteko herritar guztien beharrak asetzera, alegia. Eta beste behin errepikatu du ez dela karitate kontua, justiziazkoa baizik.



ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO ATARIKO MATERIALA!

Deitu 943 65 56 95
edo pasa bulegotik!

KATILUA Atarikideak: 9 euro. Atarikide ez direnak: 11 euro.	BOTILA Atarikideak: 9 euro. Atarikide ez direnak: 11 euro.	POLTSA Atarikideak: 8 euro. Atarikide ez direnak: 10 euro.	PACK-A Atarikideak: 20 euro. Atarikide ez direnak: 26 euro.
--	---	---	--



Aiako eta Asteasuko luistarren kongregaziokoei bururatu zitzairen Hernio puntan gurutzea jartzea. I. URDANPILLETA

Erniozaleak kultur elkarteak urteurrena ospatzeko festa antolatu du igande honetarako; kultur elkarteak bere ibilbidea egun horretan amaituko du

Hernioko gurutzeak 75 urte

Irati Saizar Artola

Uztailaren 31n, igandean, 75 urte bete-ko dira Hernio puntan dagoen gurutzea inauguratu zenetik. Erniozaleak kultur elkarteak egun hori ospatu nahi du, eta «zerbait xumea» antolatu dute San Inazio egunerako. Elkarteak berak 25 urte betetzen ditu aurten, eta egun horretan, ibilbidea amaitu eta elkarte desegingo dute.

Txistulari eta dantzarien eskutik, aurrekua egingo dute 10:30ean, gurutzearen parean. Ixidro Lertxundi Erniozaleak kultur taldeko kideak aurreratu duenez, dantzarekin batera, pare bat hitz egingo dituzte, orain arte elkarteak egin duen lana adierazteko. Eta ondoren, Zelatungo bordarekin hitz egingo da, festa egingo dute Zelatunen.

Parrila piztuko dute eta sardinak erreko dituzte bertaratzen direnentzat. 11:00etatik 13:00etara izango da hori, eta ondoren, Zelatungo betiko martxari jarraituz, nahi duenak bordan bazkalteko aukera izango du eta erromeriarik ez da faltako.

1947TIK ZUTIK

San Inazio egunez inauguratu zuten Hernioko gurutzea, duela 75 urte. Lertxundik kontatu duenez, Aiako eta Asteasuko luistarren kongregaziokoei bururatu zitzairen Hernio puntan gurutze bat zutitu behar zutela. Luistarren kongregazioa ezkondu bitarteko gizonek osatzen zuten, eta emakumeetan Mariaren alabak deiturikoak izaten ziren. Kasu honetan, luistarrak izan ziren gurutzea jartzen aritu zirenak. «Aia, Errezil eta Asteasuko herritarrak mugitu omen ziren gehien», esan du Lertxundik.

«Gurutzea egiten aritu zirenek kontatua da gurutze horrek gora adina duela behera, hormigoia sartuta». Gaurko makinariarik ez, eta «lan handia» hartu zutela dio zulo hori han puntan egiteko. Gurutzea egin zutenek istorio «harrigarriak» kontatzen zituztela gogoan du Lertxundik: «Gurutzea altxatzeko burdina eskatzera Patrizio Etxeberriarengana joan omen ziren, hark utzi omen zien gurutzea egiteko beharrezko burdina». Gero, lan guztia bertan egin behar izan zuten: esaterako, hormigoia egiteko materiala bertan txikitu zuten. «Lan handia eman ziena porlana eta ura hara gora igotzea izan omen zen. Eta aldamia egiteko ere bertako basoko egurra erabili omen zuten».

Berrogeita hamar urteren ondoren, Erniozaleak kultur elkarte sortu zen, urteurren hori ospatzeko aitzakian. Hernio ingu-

ratzen duten zortzi herritako ordezkariak biltzen ditu elkarteak: Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil eta Aia.

Berrogeita hamargarren urteurren horretarako, gurutzea konpondu zuen elkarteak: tximistorratza jarri zuten. «Tximistek kalte handiak eragiten dituzte, eta tximistorratzik jarri izan ez bagenu eta beharrezko mantenua eman ez balitzaio, seguru asko honezkero puskatuta egongo zen». Berrikuntzak egiten joan dira urte hauetan, eta horrela lagundu zaio zutik eusten.

«Gurutzea egiten aritu zen batek esan zidan 50. urteurrenean, meritu handia izan zutela garai hartan horrelako gurutze bat zutitzeagatik, baina gurutzea egiteari adina meritu ematen zion 50 urte haietan zutik mantentzen jakin izan zutelako». Lertxundik ere garrantzi berezia ematen dio

mantentzeari, eta gustatuko litzaioke 100. urteurrenera zutik iristea ere. «Badago jendea bere bizitzako denbora bat hartu duena sinbolo hori behar bezala mantentzeko, eta hori eskertzekoa da».

Gurutzea konpontzearekin batera, 50. urteurrenerako, burdinazko uztaien ondoan dagoen borda ere berritu zuen Ernioza-

Gurutzearen 50. urteurrenerako tximistorratza jarri zuten, kalterik ez eragiteko

Erniozaleak kultur elkarte igande honetan desegingo da, 25 urtez Hernioren alde lan egin eta gero

leak elkarteak. «Zortzi udaletatik laguntza jaso genuen eta bestelako diru laguntzak ere izan genituen borda berritu ahal izateko». Ospakizun horretara gurutzea egiten aritu zirenak zein haien senitartekoak gonbidatu zituzten eta omenaldia egin zieten.

ELKARTEAK 25 URTE

Behin elkarte sortuta, ez dira geldirik egon. Esaterako, *Ernio inguruan* izeneko liburu bat argitaratu zuten 1999an, mendi horren bueltan dagoena ezagutarazteko. Liburu hori egin aurretik, ibilbide batzuk sortu zituzten, inguruko herrietatik Hernio puntarako bideak zehaztuz, eta ibilbide horiek jasoz eta zortzi herrietako historia kontatuz argitaratu zuten liburua.

Horrez gain, Erniopeko zortzi herrien arteko mendi martxa antolatu izan dute azken urteetan. Urtero hasi ziren egiten, eta bi urtetik behin egitera pasa ziren gero. Ibilbide luzeaz gain, laburra ere prestatu zuten, «mendi martxa denei begirakoa izateko». «Azken urteetan, ordea, gerroz eta jende gutxiago animatzen zen, ohiturak aldatuz joan direlako, besteak beste». Azkena, 2018an egin zuten.

25 urte bete ditu aurten elkarteak, eta ibilbidea amaitzea erabaki dute. San Inazio egunean, beraz, taldea desegingo dute. «Urteak aurrera doaz guretzat ere, eta 75. urteurreneko ospakizunarekin batera pentsatu dugu taldeari amaiera ematea». Hala ere, Lertxundik esan du taldearekin jarraitzeko interesa balu norbaitek, izango duela aukera. «Elkartean gehienez 15 lagun egongo izan gara, talde jator bat osatu dugu eta elkarte kide izateaz gain, lagun egin gara».

Lau eta Erdiko II. Intxaur Txapelketako finalaurrekoak erabakita

Uztailaren 29an eta 30ean izango dira partidak, 19:00etatik aurrera; sarrerak Iriarte jatetxean edo udal bulegoetan daude

Erredakzioa Zizurkil

Joan den asteburuan jokatu zituzten Zizurkilgo II. Lau eta Erdiko Intxaur Txapelketa Abeletxe Sariko azken final-laurdenak eta, honenbestez, finkatuta geratu da finalaurrekoetan ariko diren pilotarien zerrenda.

Uztailaren 29 eta 30ean jokatuko dituzte partidak, 19:00etan hasita.

SARRERAK

Sarrerak 2 eurokoak izango dira eta salgai jarriko dituzte Zizurkilgo Iriarte jatetxean eta udal bulegoetan.

Uztailaren 29an Perurena-Altuna, Arrillaga-Garai eta Alberdi-Fernandez ariko dira, eta uztailearen 30ean Egituren-Amiano, Ruiz de Infante-Mendizabal eta Murua-Elola.

Euskal Herria, Nafarroa eta Errioxako pilotari onenak elite eta promesa mailan eta emakume mailan ari dira parte hartzen.

1989an eraikia den Intxaur pilotalekuak eman dio izena iaz abiarazitako txapelketari, eta bertan jokatzen dira partida guztiak.

Garridok urrea eskuratu du Europako Gazteriaren Olinpiar Jaialdian

FOJE (Festival Olimpico de la Juventud Europea) ari dira jokatzen Eslovakian eta Tolosaldea IKT taldeko igerilaria infantil mailako 200 metro bizkar estiloan irabazi du

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldea IKT taldeko Nahia Garrido Malvar igerilariak irabazi du infantil mailako Europa mailako FOJE txapelketako 200 metro bizkar estiloako froga, 02:15:01 denbora eginez. Europako Gazteriaren Olinpiar Jaialdia egiten ari dira egun hauetan Eslovakian, eta bertan ari da lehiatzen IKT taldeko kirolaria. Bere lehen proba izan zen bizkar estiloakoa. Atzo 100 metroko tximeleta frogan hartu zuen parte eta 02:14:28ko denbora egin zuen. Eta gaur 100 metroko bizkar igeriketa proban ariko da.

EUROPAKO ONENAK

Europako Gazteriaren Olinpiar Jaialdia Eslovakiako Banska Bystrica hirian egiten ari dira. 14 eta 18 urte arteko Europako kirolari onenak parte hartzen ari dira. Espainiako Igeriketa Federazioak 16 igerilari deitu ditu eta euskal herritar bakarra Tolosaldea IKT taldeko igerilaria.



IKT taldeko Nahia Garrido Malvar igerilaria, eskuinean, urrea irabazita. ATARIA

Europako Gazteriaren Olinpiar Jaialdia 1990 urtean sortu zen, Europako Batzorde Olinpikoen Elkarteen eskutik. Euro-

pako kirolari gazteei zuzendutako ekitaldi nagusia da. Bi urtean behin egiten da, neguan eta udan.

Errebote partida Behar Zanaren urteurrena bukatzeko

Errebote partida jokatuko dute Amasa-Villabonako eta Hazparneko taldeek uztailearen 31n, 11:30etik aurrera

Erredakzioa Amasa-Villabona

Uztailaren 31n bukatuko dira Villabonako Santio jaiak eta ekitaldietako batek Behar Zana elkar-tearen 75. urteurrenarekin egin du bat. Urtero bezala errebote partida klasikoa jokatuko dute Lapurdiko Hazparne eta Amasa-Villabonako pilotarien artean 11:30etik aurrera. 93. aldiz jokatuko dute partida hori, eta aurtengoa Behar Zana elkar-tearen ospakizun ekitaldietako azkena izango da.

Tradizio luzea duen partida, hainbeste urtez jarraian jokatu den beste neurketa bat nekez izango baita pilotaren munduan.

Caldereria Aburuza pilota partidak Adunan, abuztuaren 6an

16:00etatik aurrera XVII. Adunako Esku Pilota Txapelketako eta II. Palaz Binaka Txapelketako partidak jokatuko dituzte

Erredakzioa Aduna

Caldereria Aburuza pilota sari-ko partidak izango dira Adunan, abuztuaren 6an, 16:00etatik aurrera. Batetik, XVII. Esku Pilota Txapelketa jokatuko dute eta bestetik, II. Palaz Binaka Txapelketako partidak. Eskuz binaka benjaminen mailan Urruzola-San Sebastian Aldazabal-Zubelzu ariko dira. Alebinen mailan Ansola-Urrestila, Iparragirre-Eizagirre. Eta infantiletan Landa anaien eta Etxaniz-Arregiren arteko partida ikusi ahal izango da. Palaz binaka alebinetan X. Aburuza-A. Aburuza Elola-Elduaen ariko dira eta kadeteetan Segurola-Cestau, Iturrioz-Murua.



BANATU DUTE SARIA

Intxurre Futbol Taldearen zozketa eginda, saria banatu dute jada. 2.158 izan da zenbaki sariduna eta Patxi Renobales Intxurreko koordinatzaileak eman die saria Arantxa Tolosa eta Eusko Kaminos ama-semeei. ATARIA



UDAKO PILOTA ESKOLA

Herenegun bukatu zen Intxurre Pilota Eskolak antolatutako Udako Pilota Eskola eta amaierako festa egin zuten. Iñaki Artola gerturatu zen ekitaldira eta opariak zozkatzen lagundu zuen. Oso gustura aritu direla esan dute. ATARIA



OSTEGUNA, 2022KO UZTAILAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118, ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Udaberrikoak Boisen

Tolosako dantza taldeko kideak Estatu Batuetan izango dira, eta San Inazio jaialdian dantzatuko dute

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udaberri dantza taldeak Boisen, Ameriketako Estatu Batuetako Idaho estatuko hiri-buruan, dantzatuko du datozen egunetan. Berez, udan egin ohi duten jaialdian parte hartzekoak ziren, baina azkenean ez dute egingo, eta urtero ospatzen duten San Inazio jaialdian parte hartzeko gonbita jaso dute.

Tolosarrek hainbat lurraldeetara bidaiatu izan dute dantza-tzeko, baina Estatu Batuetara joaten diren lehen aldia dela azaldu du Xanti Nazabal taldekideak: «sekula ez dugu atlantikoa gurutzatu, eta ilusioz eta gogotsu gaude». Gaur abiatuko dira Estatu Batuetara, eta bihar izango dute lehendabiziko emanaldia. Korrontzi musika taldearen kontzertua ere izango da tartean. Hiru emanaldi izango dituzte San Inazio jaialdiaren barruan. Bigarrena etzi, larunbatean, izango dute, eta beraiekin Oinkari Basque Dancers taldeko kideak ariko dira. Baina, ez dira billabonatar dantzariak izango, duela mende erdi Boisen bertan jatorri euskalduneko herritarrek euskal dantzak berreskuratzeko sortu zuten dantza taldeko kideak baizik. Hirugarren emanaldia astelehenean, abuztuaren leian, izango dute. Jaialdiak irauteen duen egunetan jan-edanak, musikak nahiz pilota partidek ez dute hutsik egingo.

Udaberriko 33 lagunek bidaiatu



Udaberri dantza taldeko kideak Amairren. ATARIA

tuko dute Boiseran. «Taldea handia goaz, eta prestaketetan buru-belarri ari gara, jantziak eta bestelakoak behar bezala iristeko».

Dena den, Ameriketarako bidaiaren guztia ez da dantza izango tolosarrentzat. «Dantza taldea gara, eta emanaldiak eskainiko ditugu, baina dantza saioak

amaitzean, Ipar Ameriketara zehar bidaiatxo bat antolatuko dugu».

Amairko gudaren urteurreneko ekitaldian parte hartu berri dute Udaberri dantza taldeko kideak, eta hura bezala Boiserako bidaiarekin «esanahi sinboliko handikoa» dela eta «irrikaz» daukela azaldu du Nazabalek.

OSTEGUNA 28

+FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. I. Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Antzeko eguraldia.

Goizean hodeiak ugariak izango dira, baina ostarte txiki batzuk ere ikusiko ditugu. Egurditik aurrera ostarte zabalak irekiko dira, giro polita geratuko delarik. Ipar-haizea ibiliko da eta tenperatura beste pixka bat igoko da, 25-26 graduan joz goia.



Bihar. Giro motelagoa izango dugu. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira, tarteka euri lan-gar pixka bat egitea baztertu gabe. Egurditik aurrera ostarteak zabalduko dira eta giro atseginagoa izango dugu. Ipar-haizearen eraginpean jarraituko dugu beste egun batez eta tenperatura jaitsi egingo dira, 23-24 graduan joz goia.

Tolosaldeko Atariak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko
ezteiak, ezkontzak,
jaioberriak

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa